BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3947

AGINDUA, 2012ko uztailaren 31koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Vitoria-Gasteizko (Araba) «Diocesanas» ikastetxe pribatuaren jarduerak bertan behera uzteko baimena emateko eta udalerri bereko «Jesús Obrero» ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Gasteizko (Araba) «CPES Diocesana BHIP» eta «CPES Jeús Obrero BHIP» ikastetxe pribatuen titularra den «Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa» erakundearen ordezkariak abiarazitako espedientea aztertu da. Espedienteak eskaera hau izan du oinarri: baimena eskatu da CPES «Diocesanas» BHIP ikastetxe pribatuaren jarduerak bertan behera uzteko eta CPES «Jesús Obrero» BHIP ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko; hartara, ikastetxe bakar batean eskainiko dira ikastetxe biek baimenduta dituzten irakaskuntzak.

Espediente horri Arabako Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: 8/1985 Lege Organikoa uztailaren 3koa, Heziketarako eskubidea arautzen duena (4ko BOE); 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); 131/2010 Errege, otsailaren 12koa, Dekretua, apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duena (martxoaren 12ko BOE); 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituena (martxoaren 12ko BOE); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatu honi, jarduerak bertan behera utz ditzan 2012-2013 ikasturtetik aurrera:

Kode-zenbakia: 01001528.
Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua.

Izen espezifikoa: «Diocesanas».
Titularra: Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa.
Helbidea: Nieves Cano kalea 10.
Udalerria: Vitoria-Gasteiz.
Lurralde Historikoa: Araba.

2. artikulua.– Baimena ematen da 2012-2013 ikasturtetik aurrera CPES «Jesús Obrero» BHIP ikastetxe pribatuaren izena aldatzeko: aurrerantzean CPES «Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa» izango du izena. Ikastetxe hori Gasteizen dago eta 01001531 kode-zenbakia dauka.

3. artikulua.– Ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio 2012-2013 ikasturtetik aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Hezkuntza Bereziko unitateak eta Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak gehitzeko:

Kode-zenbakia: 01001531.
Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa».
Titularra: Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa.
Helbidea: Frantzia kalea 32 eta Nieves Cano kalea 10.
Udalerria: Vitoria-Gasteiz.
Lurralde Historikoa: Araba.

Ikastetxearen osaera:

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 44 unitate, 1.320 ikaspostu.

– Hezkuntza Berezia:

● Hezkuntza Bereziko 6 unitate.

● Zereginen ikaskuntzako gela 1.

– Batxilergoa: «Zientziak eta Teknologia» eta «Giza eta Gizarte Zientziak» modalitateak. Edukiera: 26 unitate eta 910 ikaspostu.

– Lanbide Heziketa:

● Familia: Administrazioa eta kudeaketa:

○ «Administrazio-kudeaketa» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 4 ziklo.

○ «Administrazio eta finantzak» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 5 ziklo.

○ «Zuzendaritzari laguntza ematea» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.

● Familia: Merkataritza eta marketina:

○ «Marketina eta publizitatea» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

○ «Garraio eta logistika» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

● Familia: Eraikuntza eta Obra Zibila:

○ «Eraikuntza-proiektuak» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

● Familia: Elektrizitatea eta elektronika:

○ «Instalazio elektriko eta automatikoak» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.

○ «Automatizazioa eta robotika industriala» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.

○ «Mantentze-lan elektronikoa» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.

○ «Sistema elektrotekniko eta automatizatuak» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

○ «Telekomunikazio- eta informatika-sistemak» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

- Familia: Fabrikazio mekanikoa:
  - «Mekanizazioa» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 6 ziklo.
  - «Soldadura eta galdaragintza» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - «Fabrikazio mekanikoko diseinua» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - «Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 5 ziklo.
- Familia: Ostalaritza eta turismoa:
  - «Sukaldaritza eta gastronomia» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - «Jatetxe arloko zerbitzuak» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - «Sukalde-zuzendaritza» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Irudi pertsonala:
  - «Estetika eta edergintza» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - «Ile-apainketa eta -kosmetika» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - «Estetika integrala eta ongizatea» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Elikagaien industriak:
  - «Okintza, gozogintza eta konfiteria» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Informatika eta komunikazioak:
  - «Mikroinformatika-sistemak eta sareak» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - «Sareko informatika-sistemen administrazioa» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - «Plataforma anitzeko aplikazioen garapena» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - «Web aplikazioen garapena» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Instalazioa eta mantenimendua:
  - «Mantentze-lan elektromekanikoa» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - «Mekatronika industriala» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - «Lanbide-arriskuen aurrezaintza» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Kimika:
  - «Laborategia» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - «Analisiko eta kalitate-kontroleko laborategia» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - «Ingurumen-kimika» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Familia: Osasungintza:
  - «Erizaintzako zainketa osagarriak» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - «Diagnosi klinikoko laborategia» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

● Familia: Segurtasuna eta ingurumena:

○ «Ingurumen-hezkuntza eta -kontrola» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

● Familia: Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuak:

○ «Animazio soziokulturala eta turistikoa» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

○ «Gizarteratzea» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

● Familia: Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak:

○ «Ibilgailu automobilen elektromekanika» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

○ «Automozioa» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

4. artikulua.– Agindu honen bidez baimendutako irakaskuntzetako irakasleen titulazioari dagokienez, indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

5. artikulua.– Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez dakar, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartez ematen diren laguntzak lortzea.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 31.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.